

Jose Luis Elorza

Ni ... naiz

Bibliako profetak:
esangura duten bizitzak

Jatorrizko izenburua: *Me llamo... Profetas de la Biblia: vidas que hablan*
© Editorial Verbo Divino, Lizarra, 2021

Euskarazko argitalpenaren izenburua:
Ni ... naiz. Bibliako profetak: esangura duten bizitzak
© Ediciones Franciscanas Arantzazu, Oñati, 2022

Itzulpena: Joxe Ertzibengoa, Tomás Elorza, Aitor Sorreluz
Maketazioa: Aitor Sorreluz
Azaleko irudia: Jeremias profeta. Michelangelok Kapera Sixtinoko sabaian eginiko freskoen xehetasuna (1508-1512)

ISBN: 978-84-7240-337-6
Lege-gordailua: D 01306-2022
Inprimaketa: Gráficas Astarriaga (Abartzuza, Nafarroa)

Arantzazuko Edizio Frantziskotarrak
Villamonte gaztelua, 2 - 4º. 01007 Gasteiz
Tel. 945 14 72 24 info@edicionesfranciscanasarantzazu.com
www.edicionesfranciscanasarantzazu.com

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Re-prográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70).

Aurkibidea

| | |
|--|-----|
| Aurkezpena..... | 7 |
| Oharrak..... | 9 |
| 1 Ni NATAN naiz "David erregea, ez duzu lotsarik" | 13 |
| 2 Ni ELIAS naiz "Hil nahi duzu? Oraindik baduzu zereginik" | 27 |
| 3 Ni AMOS naiz "Egin oihu eta garrasi bidegabekerien eta iruzurren aurka" | 45 |
| 4 Ni OSEAS naiz "Maitatzea ez da alferrikakoa" | 67 |
| 5 Ni GOMER naiz "Lehen maitasunera itzuli" | 93 |
| 6 Ni ISAIAS naiz "Fida zaitetz aurpegia ezkututzen dizun Jainko horretaz" | 111 |
| 7 Ni MIKEAS naiz "Zapaltzaileak eta ustelak, ezin zaituztet jasan" | 147 |
| 8 Ni HABAKUK naiz "Jauna, kargu hartzera natorkizu: zergatik da nagusi gaizkia?" | 163 |
| 9 Ni JEREMIAS naiz "Larrutik ordaintzen ari naiz zuk liluratu izana, Jauna!" | 177 |
| 10 Ni EZEKIEL naiz "Ihartutako hezurak berpiztu egingo dira!" | 221 |
| 11 Ni BIGARREN ISAIAS naiz "Poztu zaitetzte: azkenean, Jainkoak gogoan zaituzte!" | 249 |
| 12 Ni JAHVEH-REN ZERBITZARIA naiz "Bestea maitatzea, harik eta besteen alde sufritzeko prest egon arte" | 267 |
| 13 Ni HIRUGARREN ISAIAS naiz "Prostituta izanagatik ere, Jainkoak maite du" | 283 |
| 14 Ni JONAS naiz "Profeta zeken eta tematia" | 297 |
| Eranskinak: | |
| I. Israel-Judako historia eta profetak | 309 |
| II. Bidezko ordena sozio-ekonomikoaren eskabidea | 311 |
| III. Israelgo jatorrizko monoteismoa..... | 314 |

Aurkezpena

Biblia ez da ideia eta dogma erlijiosoen liburu bat. Hezuzko eta haragizko gizon-emakumeek, Israel-Juda izeneko herri berezi baten seme-alabek, bizi izandako esperientziari buruz mintzo da. Giza aurpegiak, bihotz sentiberak, bizi izandako historiak aurkezten dizkigu.

«*Ni Oseas naiz, ni Isaias naiz, ni Gomer naiz...*»: Bibliak esaten digunetik abiatuta, pertsonaia bakoitzari testigantza-tonu pertsonalean eta autobiografikoan hitz egiten uzten diot. Pertsonaia horietako bakoitzak zera diosku: jakin nahi duzue nolako bizitza izan dudan?, nola eta zergatik suertatu zitzaidan gozatzea, sufritzea, pentsatzea, hitz egitea, zalantza egitea, negar egitea, Jainkoaren aurrean kexatzea, nire onetik ateratzea, itxarotea? Nire bihotza irekiko dizuet, seguruenik horrek zuen bihotzean ere zerbait aurkiaraziko dizue. Zein antzekoak garen gizaki guztiok, eta zein antzekoak zuen garaiak eta nik bizi izandakoak!

Liburu honetan, ia denak profetak dira. Duela ia 3.000-2.000 urte bizi eta aritu ziren, Kristo aurretiko 1.000 eta 300 urteen artean. Baina, ze gaurkoak diren! Bibliako liburuetan biziraun dute. Bertan, genero guztietako esperientziak kontatzen dizkigute: poza eragiten dutenak, pena eragiten dutenak, esperientzia gozoak, mingarriak... Beren buruarekin izandako bizipenak eta garaiko gizartearekin bizitako esperientziak; eta, nola ez, Jahveh beren Jainkoarekin bizi izandakoak. Maiz ulergaitza gertatzen zitzairen Jainkoa eta sarritan harritu egiten zituen Jainkoa! Pertsonaia hauetako batzuek beste batzuek baino gehiago liluratzen gaituzte (adibidez Jeremiasek, Oseasek...). Barrua astintzen digute,

piztu egiten gaituzte, zauritu eta sendatu, gure gezurrak eta idoloak salatuta, itxaropenera gonbidatzen gaituzte...

«*Ni ... naiz*». Pertsonaia horietako bakoitza aitortu egiten zaigu, denboraren distantzia ororen gainetik hitz egiten ari izango balitzaigu bezala. Beren buruaz hitz egitean, beren bihotzean sartzen uzten gaituzte. Eta ispilu-lana egiten dute: haiei begiratu geure barrenari begira jartzen gara, haiengan gure burua ezagutzen. Hain gizatiarrak dira! Geure bihotza den hori irakurtzen eta ulertzen laguntzen digute: pozez eta beldurrez, argi-ilunez, frustrazioez, zalantzez, akatsez, eta itxaropenez betetako bihotza. Profeta batzuei buruz oso gutxi jakin arren hain da iradokitzailea haien mezua! (beti ere beren mezua lerroartean irakurtzen asmatzen badugu)

Pertsonaia horien garaiari buruz hitz eginez, gure garaia-ri buruz hitz egiten digute: gure gizarteari buruz, bere lorpen, bidegabekeria eta kontraesanekin; gure elizari buruz, bere tentazio, akats eta trakeskeriekin; eta XXI. mende honetako gizon-emakumeoi buruz, gure aurrerapen miragarriekin eta absurdo galantekin. Profetak beraien garaiko lekuko gisa aurkeztuz, gu gure egungo garai hauetaz jabetzen laguntzen gaituzte. Zein gaurkoa eta interpelatazailea den duela 2-000-3.000 urteko haien hitza eta jarrera!

Oharrak

Liburu hau «Pertsonaia biblikoenganako» hurbilketa enpatiko bat da; kasu honetan, ia denak profetak (beste pertsonaia ospetsu batzuk aurkezteko aukera ere izango dut: «Ni Adan naiz, Eva, Rut, David, Ana, Moises...»). Hurbilketa enpatiko honek pertsonaia bibliko horiek beren bihotzean eta bizitzan sentitu izan zutena biltzen du, baita beraiek esandakoaren muina ere.

Libururen bat bi pertsonaiatan erdibitu dut: Oseas eta Gomer bere emaztea; Bigarren Isaias eta «*Jahveh-ren zerbitzaria*».

Pertsonaia bakoitza «nobelatzeko» baimena hartu dut. Baina ez ditut asmatu pertsonaia horien bizitzari buruzko datuak, ez eta beraiek bizi izandako esperientziak, ez eta pertsonaia bakoitzaren testuinguru historikoa eta mezua. Beren liburuak esaten duten horri leiala izan nahi izan dut: esan zutenari eta, batez ere, bizi izan zutenari, alegia. Asmatuta dagoena literatur genero autobiografikoa da («*Ni ... naiz*»). Horrez gain, Bibliak literalki esaten duena baino harago joateko lizentzia hartu dut: Bibliak esaten duenaren aurka joan gabe, esandakoaren mezuari leial izaten saiatu naiz. «*Bere letran*» irakurri dut, baina baita «*letra baino harago*» ere: «*letrak iradokitzen duenarekin*» gure bihotz eta garaiarekin elkarriketan. Irakurketa historikoaz gain, irakurketa gaurkotua eta gure barnearekin zerikusia daukan irakurketa da hemen egin dudana. Iraganeko edozein obra handi bezala, Bibliak ere «*irakurketa irekia eta dialogikoa*» eskatzen du. Horregatik, batzuetan («*Ni Natan naiz*», «*Ni Gomer naiz*»...), letrak dioena baino gehiago luzatu naiz. Gomer-en kasuan, apropos (berak bizitakoaz gain, Israel herriak bizitako «*prostituzio-esperientzia*» pertsonifikatu dut beragan. Sinestunok

ere bizi izan baitugu esperientzia hori). Zenbat gogoeta eta irakurketa gaurkotuak iradokitzen dizkiguten testu eta pertsonaia biblikoek! Horra hor Bibliaren aberastasuna!

Profeten hitzen itzulpena egiterakoan, sarritan nolabaiteko askatasuna hartu dut, hitzok hobeto uler daitezten. Testuen literaltasunari jarraitu ordez, testuaren zentzuari leial izaten saiatu naiz. Batzuetan, Jainkoaren edo profeten hitz hertsien lekuan, hauen parafrasi zabaldua.

Kapitulu bakoitza atal laburretan, azpituduetan, zatitu dut. Atal bakoitzaren artean isiltasun tarte bat hartuz irakurtzea aholkatzen dut. Irakurketa taldean egiten bada, hobereana irakurle on batek ozen eta argi aldarrikatzea litzateke. Hitza entzunda, bihotzera indar handiagoz heltzen da. Ataletik atalera isiltasun laburrak eginez, musika baketsu batekin, azpituduak irakurri gabe. Are gehiago, pertsonaia bakoitzari buruzko bideo bat muntatzea iradokitzen dut, off-en egindako grabazio bat, irudi proiektatuekin, musika baketsu, atsegin eta leunarekin.

Ataletako azpituduen ondoren, testu biblikoaren aipamena egin ondoren, beste pasarte bibliko batzuk ere seinatzen ditut, norbaitek gaia sakonago ezagutu nahiko balu edo. Biblia Bibliaren bidez ezagutzen da.

Kapitulu bakoitzaren bukaeran kapituluaren edukia zenbait puntutan laburbiltzen dut, haren mezuaren aberastasunaren berri emateko asmoz. Eta galdera batzuk planteatzen ditut, hausnartu eta partekatzeko. Metodirik hobereana ez al da «tailerrarena»? Ikasketa pertsonala etxean egin ondoren, taldean partekatzea. Kapitulu luzeago batzuek (Isaias, Jeremias...) merezi dute bi saiotan irakurtzea.

Liburuko pertsonaiak kokatu ahal izateko, momenturen batean liburuaren azkeneko hiru eranskinak irakurri behar dira.

Aparatu kritikoa kanpoan utzi dut. Laster batean, *Drama y Esperanza. Lectura existencial del AT. Tomo II: «Un Dios*

desconcertante y fiable. Libros proféticos» EVD 2016 liburuan aurki daiteke. Eskuarlean duzun «Ni .. naiz» liburua liburu horretan oinarritzen da.

Liburu honetan adierazten dena ulertzen lagun dezake-
ten liburu gutxi batzuk aipatuko ditut:

Albertz, Rainer, *Historia de la religión de Israel en tiempos del Antiguo Testamento*. Trotta 1999

Alonso Schökel, L. eta Sicre, J. L., *Profetas. Comentario*. Cristiandad 1980, bi tomo

Elorza, J. L., *Drama y Esperanza. Lectura existencial del AT. Tomo II: Un Dios desconcertante y fiable. Libros Proféticos*. EVD 2016

Farmer, W. R. (eta beste batzuk), *Comentario Bíblico Internacional*. EVD 1999

González Faus, J.I., *Vicarios de Cristo*. Trotta 1991

Guijarro, S. eta Salvador, M. (zuz.), *Comentario al Antiguo Testamento*. La Casa de la Biblia-Verbo Divino 1997, II. tomoa

Kessler, Rainer, *Historia social de Israel*. Sígueme, Salamanca 2013.

Leclerc, Eloy, *El pueblo de Dios en la noche*. Sal Terrae, Santander 2004.

Nocquet, Dany, *El Dios único y los otros dioses. Esbozo de la evolución religiosa del antiguo Israel*. EVD 2012, CB n. 154

Sicre, J. L., *Con los pobres de la tierra*. Ed. Cristiandad 1985

Sicre, J. L., *Profetismo en Israel. El profeta. Los profetas. El mensaje*. EVD 1992

Sierra Bravo, R., *El mensaje social de los Padres de la Iglesia. Selección de textos*. Ciudad Nueva 1989

1

Ni NATAN naiz

Ez nintzen izan gerora etorri ziren Israel eta Judako profeta handi horietakoa. Baina nik ere «Jainkoaren izenean» hitz egitera eta ekitera deitua sentitu nuen neure burua. Eta, alajaina, David erregearen aurrean, Jerusalemen, K. a. 1.000. urtean. Oro har, «gorteko profetak» erregeen interesen menpe zeuden, haien kontura bizi baitziren. Interes horiek batzuetan zintzoak ziren, eta beste batzuetan, ez hainbeste. Herriaren arazo eta sufrimenduei ez zieten gehiegi erreparatzen. Baina ni, haietako bat izanik, ez nintzen David erregearen interesen menpe erori. Kontatzera noakizue.

1. Gaizkile izatetik errege izatera

1 Sam 17-21; 22-23; 27-30

Daviden berri izan al duzue? Judako erresumako lehenengo erregea izan zen. Garai hartan Jerusalem zen Judako hiriburua. Pertsona ospetsua eta aparta izan zen David hura. Belenen jaio zen, herri txikitxo batean. Familia ugari bateko gazteena izanagatik ere, ospetsuena izatera iritsiko zen. Mutiko zela hasi zen jada Judako basamortuan artzain lanak egiten, bere biziaren alde borrokatzen, baita bere aitaren ardien bizitzaren alde ere. Oraindik gazte zelarik, Saulen errege-guardian eman zuen izena. Saul Israelgo ondoko tribu batzuen errege izendatu berria zen. Hura izan zen Daviden lehenengo pausoa gora egiteko. Handik gutxira, heriotzarainoko duelu batean, habaila eta ibaiko errekarri bat armatzat zituela, Goliat filistear erraldoia garaitu zuen: garaipen honek izena eman zion.

Bere dohain pertsonal apartek eta bere ekintzek gora eta gora zeramaten jendearen aurrean. Saul erregeak begitan

hartu zuen, bertan akabatu nahi izaterainoko gorrotoa zion: erregetza indarkeriaz lapurtuko ote zionaren beldur, etsaitzat baitzuen. Hala, Davidek Saulen gortetik ihes egin behar izan zuen, *habiru* bat izatera iritsiz, ahal den moduan bizirauteko eta aurrera ateratzeko mendira ihesi joandako legegabe bat, alegia. Benetako buruzagia, bera bezalako legegabe eta gaizkile arriskutsuak ziren beste *habiru* batzuen buru peto-petoa izatea lortu zuen. Horrela dio Bibliak: «*Larrialdiren batean zirenak, zorrez josiak eta etsirik zeudenak Davidengana bildu ziren, eta buruzagi hartu zuten. Laurehun bat gizon zituen berekin*». Haiekin jende talde trebatu bat osatu zuen eta ahal zen moduan bizi ziren: lapurretatik, estortsioetik, edo auzoko erregearen zerbitzuan mertzenario gisa beren buruak salduz.

Oso azkarra bera, mafia-metodoak erabili zituen maltzurkeria handiz. Estortsioa eta lapurreta bidelagun bazituen ere, laborariak eta abeltzainak babesten zituen haien faborea irabaztearren, babesgabeei zor zitzaiena ematen zien, justizia eginez. Helburu berarekin banatzen zuen lortutako harrapakina. Zuen garaietako Robin Hood edo Curro Jiménezen antzera! Lurraldeko jendearen konfiantza irabazi zuen eta Judako bere tribuko errege aitortu zuten. Urte gutxira, gora eginez eta beti maltzurkeriaz eta besteen biziak jokoan jarritz, erresuma bikoitz baten errege izatera iritsi zen, Judako eta Israelgo errege, alegia. Talentu handiko gizona eta erakarpen pertsonal sendokoa, bere erregetza bikoitza trebetasun-kolpepe, ankerkeriaz, zortez eta oportunistoz landu zuen. Ezeretik boterera goratu zen David honekin suertatu zitzaidan profeta modura borrokan ibiltzea.

2. «Zeu zara gizon hori!»

2 Sam 11-12; gaia garatzeko, 1 Sam 8; Dt 17,14-20

Ni Daviden Jerusalemeko gortean nintzen profeta. Baina ez nuen bat egin haren asmo eta pasio pertsonalekin. Justizia neure eta erregearen gainetik zegoen. Momentu bat iritsi

zen ordea, zeinetan erregearen aurka egin behar izan nuena. Askok hala uste bazuten ere, David ez zen santu bat, ez. Gertatutakoa kontatuko dizuet; pelikula bat egiteko modukoa. Arratsalde batean, siestaren ondoren, David terrazara igo zen; handik, emakume bat ikusi zuen bainatzen; oso ederra zen. Batek daki zenbat emakume zituen Davidek; baina pasioa piztu zitzaion. Emakumeaz galdetu zuen; Betsabe zen, Urias-en emaztea. Urias hori errege-armadako ofizialetako bat zen; Urias urruti zegoen, amonitarren aurkako gerran (gaurko Amman). Davidek mandatariak bidali zituen Betsabe ekar ziezaioten. Harekin oheratu zen. Oso erraz beraz, eskripulurik gabe.

Baina kontuz ibiltzeko arazo bat gertatu zen. Betsabe-k Davidi ohartarazi zion: «haurdun gelditu naiz». Davidek, beti amarrutsu, berehala asmatu zuen zer egin. Urias deitzeko agindu zuen. Frontetik etorrira, guduaren nondik norakoa jakinarazi zion Urias-ek Davidi. Gero, Davidek esan zion: «zoaz zure etxera, garbi zaitetz, atsedean hartu...». Maltzurra bera, Betsabe bere andrearekin oheratzea espero zuen, eta hala, semea Urias-ena izango zela usteko zen. Baina Urias pertsona zuzena eta osoa zenez, gaua guardian zeuden soldaduekin eman zuen, esanez: «*nire jenerala eta soldaduak frontean borrokan eta lur gorrian kanpatzen; neure etxean sartuko ote naiz, bada, ni, jan-edanean aritzeko eta emaztearekin oheratzeko? Nire Jainko eta nire erregeagatik, ez dut sekula halakorik egingo*». Urias zintzoa, bere lanbideari eta beretarrei erregea bere karguari baino leialagoa! Zoritzarrez, halako jende zintzoa jasangaitza suertatzen da lotsagabe eta ustelentzat.

Davidek horren berri izan zuenean, kezkatua gelditu zen. Azpijoko gehiago bilatu zituen Urias etxera joan zedin, baina ez zuen lortu. Eta gauza batek beste gauza batera baitarama, azpijokoan krimena bururatu zitzaion. Uriasekin armadako jeneralari mandatu bat bidali zion. Mandatu horretan zera agindu zion Davidek jeneralari: amonitarren aurkako gudua hasteko eta bertan Urias-i segada bat pres-

tatzeko, borrokaren erdian hil zedin. Esan eta egin! Hala hil zen gizon errugabe eta zintzo hura, moralik eta lotsarik gabeko errege baten amarrukeriagatik, eta bera bezalako batzuen konplizidadeagatik. Ez dizuet kontatuko Davidek, bere gaiztakeria zuritzeko asmatu zuen itxurakeri guztia. Bere agindu bidegabeak obeditu zituen jenerala goretsiz bukatu zuen. Betsabe (hura ere itxurakerietan?), denbora batez doluz jantzi bazen ere, berehala hurbildu zitzaion Davidi. Zer zegoen Daviden bihotzean? Eta andrearenean? Zer iruditzen?: gaizkia maiz sare bat da.

Istorio zinez gizatiarra, filmetakoa! Izan dira antzekoak eta badira ere egun halakoak! Baina Biblia ez da prentsa horia; bere istorioak ez dira jendearen morboa asetzeko. «*Jainkoak ez zuen atsegin Davidek egina*», esaten da bertan. Sexu-bekatua baino, emaztea desohoratzea gizon leial eta zintzo baten ohorearen aurka egindako eraso izan zen; hori gutxi ez eta Davidek Urias lausengatu eta ondo tratatu zuen, ondoren iruzur egin eta erabiltzeko; bukatzeko, zerbait okerragoa: Uriasen hilketa erabaki eta prestatu zuen, indarkeria eta odola tarteko.

Jainkoak ni bidali ninduen, profeta gisa, egia azaleratu nezan: profeta orori bezala, iruzurra eta indarkeria salatzeko tokatzen zitzaidan. Daviden aurrera joan nintzen eta egia aurpegira esan nion. Aurrez aurre, itxurakeriatan ibili gabe, baina, ekialdekook egiten dugun bezala, abilezia finez. Egindako izugarrikeriaz konturatu behar zuen, hartaz jabetu eta aitortu. Istorio bat asmatu nuen amarru sotilean eror zedin. Kontatu nion:

«Hara, baziren hiri batean bi gizon, bata aberatsa, eta beste behartsua. Aberatsak ardi eta behi ugari zuen. Behartsuak, aldiz, ez zuen erositako bildots koxkor bat baino. Berak elikatu zuen eta bere etxean hazi, seme-alabekin batera; bere ogitik eman ohi zion jaten eta bere edalontzitik edaten, eta bere magalean lotaratzen zuen. Alaba bezalaxe zuen.

»Behin batez, bisitari bat etorri zitzaion gizon aberatsari. Gizon aberatsak ez zuen bere ardirik, ez behirik hartu nahi

izan arrotz hari jaten emateko, horren orde, behartsuari lapurtu zion bildotsa...».

Entzuterakoan, «biziki haserretu zen David halako gizonaren aurka, eta esan zidan: *Ala Jauna! Hori egin duenak bai merezi duela heriotza!*... . Eta nik esan nion segituan: «zeu zara gizon hori».

David konturatu zen eta harri eta zur gelditu zen. Nik erantsi nuen: «*Hona zer diotsun nire ahotik Jainkoak:*» mesede ugari egin dizut zure bizitzan zehar; errege gantzutu zintudan, atzetik zetorkizun Saulen eskuetatik askatu, Israel eta Juda erreinuak eman... «*Zergatik egin duzu Jaunaren begietan oker dena?*». Izugarri desatsegin dudan zerbait eginez ordaintzen didazu? Urias hilaraziz eta haren emaztea hartuz, Ni mespretxatu nauzu, giza bizi oro zaintzen baitut. Zer gutxiago kontuak eskatzea baino?».

David ez zela berean tematu esan behar dut. Haren bihotzean bazen oraindik Jainkoaganako fede hausberorik eta kontzientzia moralik; biak ala biak iratzarri zitzaizkion nire hitzen aurrean; eta saminez, negarrari eman zion. «*Jainkoa atsekabetu egin zuen*», baina egia itzuli zen.

Jainkoa nitaz baliatu zen, Daviden bihotzean ongi dagoenaren eta oker dagoenaren sena pizteko. Ezin da jokatu sinesten duzun Jainkoarekin, ez eta lagun hurkoarekin ere; lagun hurkoaren bizia, duintasuna eta gizon-emakumearen arteko maitasunaz zoriontsu izateko eskubidea sakratuak dira. Hogei bat urte lehenago, Samuelek egia abestu zion Israelgo lehenengo errege Sauli: Jainkoaren borondatea egitea, eskaintzak eta sakrifizioak egitea baino garrantzitsua goa da. Nik ere, Jainkoaren profeta izaki, egia abestea baino ez nuen egiterik, aurrean edonor nuela ere: handia zein txikia izan, menpeko edo errege izan. Davidek egindakoa onartezina zen; pasioak arrastaka eramane zuen, bere botereaz abusatu zuen, errugabe baten biziaren aurka jo zuen. Ni, botere politikoaren aurrean pertsonen eskubideak defendatzen dituen Jainkoaren testigu modura ari nintzen.

3. «Zuk Niri?; ez, Nik zuri»

2 Sm 7,1-17; sakontzeko: Lk 1,26-38

Izan zen Davidi hitza zuzentzea tokatu zitzaidan beste momentu historiko bat ere. Honek Jerusalem konkistatu zuen (maltzurkeria handiz egia esan, estrategia handi bat baizen). «*Daviden hiri*» izendatu zuen, bere erresumaren hiriburu zibil bihurtuz. Erlijioa eta politika beti eskutik doazenez, «*Jahveh-ren hiri*» ere izendatu zuen, bere erresuma osatzen zuten tribu guztien hiriburu erlijioso, alegia. Jerusalem tribu denak bildu eta elkartzeko lekua bihurtu zen. Hori lortzeko, «*itun-kutxa*» bertara lekualdatu zuen. Honek sinbolo nazional garrantzitsua izaten jarraitzen zuen, gure artean Jahveh Jainkoaren presentziaren zeinu. Gure garaitik erdi-nomadatik, larreko azienden leku-aldatzeak direla eta oihal-etxolatan bizi ginen garai haietatik, bagenekien gure etengabeko ibileran Jainkoa bidelagun genuela. Davidek egoitza duin bat nahi zuen Jahveh-ren kutxarako. Eta esan zidan: «*Hara, zedrozko jauregi batean bizi naiz ni; Jainkoaren kutxa, aldiz, oihal-etxolan dago; beraz, tenplu bat eraiki behar diot Jahveh gure Jainkoari*». Erregearen jau-regiaren alboan, tenplu bat nazioaren Jainkoarentzat.

Intentzio ona zen. Daviden egitasmoak goresgarria zirudien, erlijiosoa. Hasieran, bat egin nuen Daviden ideiarekin. Inguruetakoko herri guztiek beren jainkoentzako tenpluak zituzten. Horregatik esan nion: «*zoaz, bete zeure asmoa, zeurekin baituzu Jauna*». Baina Jahveh gure Jainkoak beste modu bat zuen gizakiarekin harremanetan jartzeko. Horrenbestez, nire ideia eta ikuskera aldatu zizkidan. Gau hartan, Jainkoak esan zidan:

«Zoaz eta esaiozu ene zerbitzari Davidi: zuk eraiki behar al didazu etxea (tenplua), Ni bertan bizi nadin? Ez naiz inoiz ere etxe batean bizi izan», zuekin leku batetik bestera ibiltari izan naiz. Ez dut nahi zuk Ni etxe barruan giltzaperatzea, beste herriek beraien jainkoekin egiten duten moduan. Bizi den Jainkoa naiz: ez naiz inolako tenpluren beharrean. Nire lekua munduko bazter guztiak dira. Toki bati loturik egotea ez

dator bat Nirekin, gizakien ondoan dagoen Jainkoa izatea dagokit, beren bizitzaren abentura bizi duten tokian bertan bidelagun izanez. Jainko errimesa izan naiz Ni; zuek ibiltari zinetela, Ni ere zuekin nenbilen, Egiptotik atera zintuztedanetik.

Begira iezaiozu zure bizitzari, zurekin egin dudan horri: basamortuan artzain izatetik, Nire herriaren artzain eta errege egin zaitut; «*zurekin izan nauzu ibili zaren toki guztietan*». Etorkizunera begira, zeure etsai guztiak adiskide bihurtuko dizkizut, bakea emanez; zurekin, Nire herri Israel zoriontsu biziko da hemen.

Gehiago esango dizut, leinu bat aterako dut zuregandik: Israel eta Judako zure ondorengo erregea zure erraietatik jaiotako semea izatea nahi zenuen, zeure amets hori beteko dut. Ez didazu etxe-tenplurik eraikiko Niri; aldiz, Ni izango naiz zuri errege-leinua emango dizudana; eta «*zure etxeak eta zure erregetzak betirako iraungo dute zure ondoren; eta zeure errege aukia sendo mantenduko da beti*», Nire herriaren onerako.

4. Berri ona!

2 Sm 7,17-29

A zer hitzak Jainkoak Davidi zuzendutakoak! Gure historian inork ez zituen halakoak entzun. Davidek aintza- eta handitasun-ametsak zituen. Jainkoa haietaz baliatu zen guri historiaren etapa berrian gehien behar genuena emateko. Ni neu, Natan, erabat gaindituta sentitzen nintzen, nire ahoz Jainkoak Davidi egin zion promesak guztiz gainditu ninduen. «Ebanjelioa» zen, berri ona: Davidentzat eta herri guztiarentzat. Zerbait guztiz berria! Egiptotik irten ondoren, bizpahiru mende luze behar izan genituen lurralde bat geureganatzeko, haren aberastasunari esker bildutako uzta jasoz bizi ahal izateko eta «*herri*» batua, indartsua, antolatua osatzeko. Neke eta zatiketa askoren ondoren, Jainkoak Daviden bitartez eman zigun hori guztia: artzain bat izatetik, errege egin zuen, gure ongizate eta segurtasunerako. Davidekin, 1.000 K.a. urte

inguru haietan, gure historian etapa berri bat hasi genuen. Errege-familia edo -leinu baten bitartez gutaz arduratzen jarraituko zuela agindu zigun Jainkoak, nire ahoz. Berak la-
gunduko zigun gure etorkizuneko belaunaldietan, ondoren-
go «*Daviden semeez*». Jainkoak honela erantzuten zion gure
galdera oso existentzial bati: izango al genuen herriaren alde
egingo zuen erakunde monarkikorik?, erresuma sendotuko
zuen errege-leinu iraunkorra eta, etsai posible eta ororen aur-
ka, bake egonkorra emango ziguna? Jainkoa, nire hitzez, gure
kezken bidera atera zen. Eta leial jokatuko zuen.

Nire hitzen aurrean, Davidek ulertu zuen: Jainkoari
Berari tenplu bat eraikitzea baino gehiago interesatzen zi-
tzaion bere herria. Jainkoaren bihotzean Bere herria eta ha-
ren etorkizuna zegoen. Nire hitzak entzun ondoren, David
Jainkoari abesten hasi zitzaion pozez eta eskerronez. Hala-
ko Jainkoa izateaz harrিতuta, zera erregutu zion, konfiantza
osoz: «*Jauna, bete, otoi, zure Hitza: Zutaz eta Zure herriari dio-
zun leialtasunaz fio naiz*». Jainkoari tenplu bat jasotzea baino
garrantzitsuagoa zen Jainkoaren Hitza entzutea eta sines-
tea. Iraganean Jainkoak Davidi Haren presentzia babeslea
oparitu zion; orain, Bere bitartez, herriari presentzia huraxe
oparitu dio, etorkizunean fidaturik eta segur bizi dadin.
Kontua ez da Jainkoari zerbait ematea edo Haren alde zer-
bait egitea, gizakiari eskaintzen diona Harengandik jasotzea
baino. Jainkoak Daviden, gure eta gizaki ororen aldetik nahi
zuen erlijioa honelakoa da: Berak eman nahi diguna jaso-
tzea eta eskerronez eta miresmenez betetako, uste sendoan
oinarritutako eta erantzukizunean eraikitako fedearekin
erantzutea eskaintza horri. Jainkoak nahiago ditu eskale
otoizgile eta eskerronekoak, emaile eskuzabalak baino.

5. Gizakia, zenbat kosta Jainkoari!

Jainkoaren profeta izanik, ni neu izan nintzen aurrena
Jainkoari eta Israel-Juda gure herriari buruzko gauza ga-
rarrantzitsuak ikasten. Hona hemen ikusi eta ikasi nuena.

Lehenik, David pertsonaia. Izugarri asko pentsarazi zidan: goranhia, maltzurra, mendekatzailea, erasotzailea, oldarkorra, emakumezalea, Jainkoagan bere modura sinesten zuena! Holakoak ezagutzen dituzunean, burura datorkizun lehena hauxe da: zerez eginak garen gizakiok! Edozer egiteko prest, gora egin eta boterea, prestigioa eta ospea lortzeko egarriz. Ondoren, honakoa galdetzen diozu zeure buruari: nolatan eta zergatik baliatzen da Jainkoa David bezalako pertsonaiaz mundu oker eta mehatxatu hau zuzendu eta hobetzeko? Eta David bezalako Bibliako hainbat eta hainbat gizon-emakumeri begiratzen badiegu, «*Jainkoaren herri*» deitzen den horri begiratzen badiogu...!

Gogoan ditut gure historiako pertsonaia lotsagarriak: Ehud, Abimelek, Jefe, benjaminitarak, Saul, Jehu... A zer elementuak! A zer jokabideak haienak! Eta zuen artean, kristauen artean kristauak, bi mila urteko historia luzean izan direnak gogora ekartzen baditugu...! Jesusen jarraitzaileengandik hasita: batek ukatu egin zuen, beste batek traizionatu, besteek abandonatu. Eta zuek «*eliza santa*» deitzen duzuenarekin jarraituz: kristau gobernariak eta eliz-gizon autoritarioak, erasotzaileak, gonazaleak... Batzuetan pentsatzen dut: ze gutxi ikasi duzuen Nazareteko Jesusen bizibidetik! Bera, miresgarria; zuek...! Jainkoaren bi herri horietako gizon-emakumeok lokatz zikinez eginak gara: zenbat lohi eta basa gure historian!

Gure Biblia «*Jainkoaren Hitz*a» da, esaten dugunez, baina... Alde batetik, orrialde eder eta sakonak daude bertan, pertsona miresgarriak eta, orokorrean, Jainkoaren irudi paregabea. Baina bestetik, indarkeriaz, azpikeriaz, handinahiez eta gora egiteko antsiaz beteta dago; eta sexuz, konplotez eta traizioz, famili gatazkaz, besteen zapalketez, Jainkoa eta erlijioa interes politikoen mendean, haren izenean gerra santuak... Hain zuzen ere, David eta haren senideen historia irakurtzea gomendatzen dizuet (1 Sm 16 - 1 Erg 2); zenbat kostatu zitzaion Jainkoari David poliki-poliki otzantzea eta haren bihotza heztea!

Bibliak pertsonaia oso gizatiarrak aurkezten dizkigu, oso mundu honetakoak. Eta gurasoak seme-alaben kakarekin bezala, Jainkoa gure lokatzekin zikinduta eta kakaztuta agertzen da. Ez, Biblia, Jainkoaren Hitza izanik, ez da berez «liburu espiritual» bat, Jainkoaren irudi bikain batekin, ideia ezin ederra-goekin, pertsona eta historia eredugarriekin jantzitakoa; hala balitz mundu hau zapaltzen ez duten aingeruentzat izango zen, eta ez lurraren arrasean mugitzen garen gizakiontzat. Biblia oso gizatiarra den Hitza ere bada, gutako bakoitza garen misterio konplexua irakurtzen eta ulertzen laguntzen digun Hitza.

Urias-en ohorearen eta biziaren aurka egin zuen Davidek. Portaera lotsagabe horrek hausnarketarako beste aitzakia bat eman zidan. Nahiz eta David errege izan, ezin bestez sartu behar izan nuen harekin; menpekoen bizitzak eta eskubideak erregeen interesen, pasioen eta gutizia pertsonalen gainetik daude. Eta zera pentsatu nuen: gizakiok bihotzean kontzientzia argirik ez badugu, pasioak piztuko zaizkigu. Batzuetan, sexu-pasioa; beste batzuetan, gero eta gehiago pilatzeko gutizia, edo handinahia eta inoiz ere pozik ez dagoen «egoa», edo gehiegizko nartzisismoa... Pasio edo grina horiek itsutu eta dominatu egiten gaituzte, Davidi bezala. Eta horretarako aproposa den karguren bat badut, zer esanik ez. Nire garaian ikusi nuen eta zuenean ikusten dut. Erljioa adulteratu egiten dugu, faltsutu, indargabetu. Ez diogu Jainkoarekin eta lagun hurkoarekin topaketa-leku izaten uzten. Nire ondoren etorri ziren profetak ezagutzera gonbidatzen zaituztet: mota guztietako abusuen menpe erortzeko arriskuan zegoen jende xumea eta ona zapaltzen zuten ahalguztidunekin izugarri kritikoak izan ziren!

6. «*Dena Nirea da, zer eman diezadakezue?*»

2 Sam 7,17-29; Is 66,1-2;

sakontzeko: Sl 131; 51,17-21; Mt 15,1-20

Esan dizuedan bezala, beste momentu batean ere Jainkoaren izenean David zuzendu behar izan nuen, Jerusalem

hirian Jainkoari tenplu bat eraikitzeke asmoa zuenean, hain zuzen ere. Daviden ideiak zuzena eta erlijiosoa zirudien arren, sakonean, bere ospe-gosea ase nahi zuen, erlijioz jantzitako grina! (Daviden semea izan zen Salomon erregeak bezala, 30 bat urte geroago tenplua eraiki zuenean). Ez al zen, gainera, Jauna erosteko modu bat? Ekintzen bidez, zintzoak edo okerrak izan, Jainkoaren mesedea lortzeko modu bat? «Erlijio eta kultu askoren» ondoan, zenbat interes giza-tiar eta ez benetakoak! Ospe pertsonal edo nazionala lortzeko edo helburu politiko-militar kolonizatazailak lortzeko, zenbat tentazio gobernari eta herriengan, Jainkoaren izena erabiltzeko! Maiz gertatu da erlijioaren eta politikaren arteko ezkontza okerrik. Hiriaren handitasunerako edo turisten miresmenerako katedral izugarri handiak jaso izan dira, egundoko meskitak. Sarri askotan, preso, esklabo eta gaizki ordaindutako langileez baliatuta (gogoratu «El valle de los caídos»); eta herriaren txabolei eta pobrezinari begiak itxiz.

Nolanahi ere, Jainkoak Davidi esandako hitzek zerbait gehiago pentsatzera eramanez ninduten: «*zuk Niri tenplu-etxerik ez, Nik zuri leinu-etxe bat zure herriaren etorkizunerako baidzik*». Hitz horien zentzurik sakonena bilatu nuen: gure sentimendurik hoberenak eta pentsamendurik espiritualenak ez dira, maiz, Jainkoarenak. Nire garaiko fededunek eta zuen garaiko fededunek uste dute erlijioa Jainkoari edo Jainkoagatik zerbait egitea dela: kulturako tenplu bat jasotzea, opariak eta sakrifizioak eskaintzea, prozesioak antolatzea, kandelak piztea, liburu espiritual bat idaztea, norberaren bizia zelibatuan entregatzea... Ideia oso onak! Eta hala ere...!

Ulertu nuen: gure erlijio biblikoa, oroz gain, Jainkoaren Hitza entzutea dela, Berak eskaintzen dizun bizia onartzea, zure bide guztietan bidelagun duzula sinestea, zure burua barkatua sentitzea, zugandik harago eramaten uztea beti. Hau da, Jainkoari zurekin «Jainko izaten» uztea, bizi eta maitasun-iturri izaten uztea. Eta zure aldetik, erantzun modura, halako Jainkoaz fidatzea, gizakiak maitatzen eta zain-

tzen dituen halako Jainkoak zugan harridura sortzen uztea, Bera miretsiz eta Berari esker ona adieraziz pozik bizitzea, eta Bere nahia betetzea. Davidek oso ongi eman zuen aditzera, Jainkoari egin zion esker oneko otoitzean!

Zure bizitzan gauza harrigarriak egin badituzu ere, urteekin Jainkoak zuregatik eta zure bizitzan egin duena askoz gehiago dela ohartzen zara; Berak zure alde egindakoa zuk Bere alde egindakoa baino erabakigarriagoa dela. Mende batzuk geroago, Jainkoak, beste profeta baten ahoz zera esan zuen:

«Nik sortu dut zeruan eta lurrean existitzen den guztia; zer tenplu jaso diezadakezue nire egoitza izan dadin, den-dena nirea bada eta den-dena nire egoitza bada? Nik begiak, apala eta Nitaz fio denarengan jartzen ditut. Nik nahi dudana da Nirekin fio zaitetzen, eta zuen Jainko salbatzailea izaten utz nazazuen».

Esanez bezala: «ez naiz Ni, Jainkoa, zuen aldetik zerbait jaso behar duena; zuek zarete, gizakiok, Nire aldetik jaso behar duzuen». Jainkoak ez ditu tenpluak behar, ezta opari sakraturik ere. Tenpluen beharra sinestunen kontuak dira, beste arrazoi praktikoa askoren artean beste sinestun batzuekin bildu ahal izateko. Arrazoi sinbolikoek ere badute zeresana tenpluak eraikitze behar horretan: gizakiak, «animalia sinboliko gisa», leku, objektu eta errito erlijiosoak behar ditu beragandik harago joaten lagun diezaioten, bere mundu enpiriko eta konkretutik harago. Baina munduan presente egiteko eta gizakiaren bide guztietako bidelagun izateko Jainkoak ez du behar «leku sakraturik». Are gehiago, gizakiak gaizkia egiten duenean ere Jainkoak bere bidelagun izaten jarraitzen du.

Jainkoak, Bere ontasun hutsagatik, Bere begiak bihotz apalengan eta lur jota daudenengan jartzen ditu. Daviden bizitzan guztian zehar, baita inor eta ezer ez zenean ere, Jainkoa Daviden bidelagun izan zen. Katedral ederrenak eta handienak eraikitzeak edo Jainkoari boto eta promesa bidez bizitza sagaratzeak baino gehiago balio du bihotz apala izateak, Jainkoarekin fio izateak eta Berak zu maite zaitzan uzteak. Mila

errezu eta prozesio baino gehiago hobe profetei eta Nazareteko Jesusi Jainkoaren Hitza esaten uztea eta entzutea.

Natan profeta, zuen anaia

NATAN laburbilduz

- Profeta eta erregea aurrez aurre. Kontzientzia, arinkeria eta botere-abusuaren aurrean.
- Profetek egia bereizten eta abesten dute, txikiei nahiz handiei.
- Profetak ez du besterik gabe salatzen, bihotzaren konbertsioa lortzeko baizik.
- Erljio biblikoko lehena eta oinarrizkoena: Jainkoaren Hitza entzutea eta Harenganako esker oneko fedea eta konfiantza izatea.
- Garrantzitsuena eta erabakigarriena: Jainkoak gizakiaren alde egin duena eta egin nahi duena.
- Lagun hurkoarekiko justizia eta maitasuna, tenplua eta kultua baino garrantzitsuagoak dira.
- Sinestunok (eta eliza) «gizatiarrak» izaten jarraitzen dugu, gure grinak menderakaitzak gertatzen zaizkigu. Borondate ona ez da nahikoa. Jainkoaren errukiarri eta pazientziari esker bizi gara.
- Biblia Jainkoaren Hitza da, Hitz oso gizatiarra bada ere.

Hausnartzeko eta partekatzeko:

1. Zer diotsu Daviden pertsonaiak, batez ere zeure burua ulertzeko? Eta haren historiak?
2. Erljioa, Jainkoari zurekin bizi- eta maitasun-Jainko izaten uztea da, Berak nahi duen eran. Zer iradokitzen dizu horrek?